

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2019KO ABENDUAREN 20A-412.ZENBAKIA

KARKARA



GABONAK AIAN ETA ORION

HATOR HATOR MUNDUTIK HERRIRA

+ GEHIGARRIA
EUSKARAZ GAZTE
LITERATUR LEHIAKETA

ARKUPE ELKARTEA

DENDARI, OSTALARI ETA PROFESIOALEN ELKARTEA

Gabonetako zozketa 2019

1. saria: 1200 €-ko balioaz mediterranean itsasoan kruzero eder bat
2. saria: 500 € erosketa bonoa Arkupeko dendetan gastatzeko
3. saria: 300 € erosketa bonoa Arkupeko dendetan gastatzeko

prezioa:
1€



Orion
bi

Zozketa irekia abenduak 30ean kultur-etxean, 14:30ean.

Zozketako oinarriak Arkupeko web-orrian argitaratuko dira



KARKARA 412

2019KO ABENDUAK 20A
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 5 | Iritzia Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Festarik festa</i> | 30 | Erreportajea Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Haurren eskubideak eta ongizatea erdigunean</i> |
| 6 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Rita Zaldua</i> | 34 | Akuilua hartuta Irati Antia
<i>Harritik hutsera</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Rosana Arruti
<i>Argazkilariaren erronka</i> | 35 | Nire honetan Dorleta Agiriano Lai
<i>Atzean utzitakoak</i> |
| 10 | Gutunak | 37 | Ikasleak idazle Aiako Lardizabal
<i>Herri Eskola</i> |
| 13 | Herrian galdezka | 38 | Osasuna Ainara Manterola
<i>Mugitu zure osasunagatik</i> |
| 14 | Oroimenaren kutxa Iñaki Itulain
<i>Agustin Aldalur Aiako bistulari eta organo-jolea</i> | 39 | Euskara Iñigo Fernández Ostolaza
<i>Gure pribilegio eta ardurak</i> |
| 18 | Erreportajea
<i>Munduan zehar bidaia, Gabonetako ospakizunetan barrera</i> | 40 | Albiste laburrak |
| 24 | Irudietan | 42 | Plazan bazan |
| 27 | Bazkide kluba | 44 | Agenda |
| 29 | Moila bazterretik Egoitz Dorronsoro
<i>Paperean irakurtzea errebeldia delako</i> | 45 | Zerbitzuak |
| | | 46 | Hasi bertsotan Maria Azkue |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.

Soreasu z/g. 20730

AZPEITIA

943-86 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Lehendakaria

Rikardo Uzquidun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran
Dorleta Agiriano Lai
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Intza Unanue Arruabarrena
Rikardo Uzquidun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue
Publizitatea

Leire Martija

Ale honetako kolaboratzaileak

Egoitz Dorronsoro
Irati Antia
Ainara Manterola
Iñaki Iturain

Iñigo Fernández Ostolaza

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)

Eli Irueta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



AIKO
udala

GABON HAUETAN OPARITU ONGIZATE ESPERIENTZIAK

Gastro erlaxazio bonoa 37,90€-tik
Talasora egunpasa 59,00€-tik
Oparitzeko ideia gehiago www.villaantilla.com-en



VILLA ANTILLA

HOTEL & THALASSO

HOTEL & THALASSO VILLA ANTILLA · 943-89 21 02 · reservastalaso@villaantilla.com · Hondartza Bidea 1, Orio

Festarik festa



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Polemikarekin hasi ziren aurtengo sanikolasak, plazako lanak direla-eta, festagunea tokiz aldatu behar eta tiobiborik edo barrakarik ez zela egongo jakinarazi baitzuen jai batzordeak. Albisteak ezustean harrapatu zituen herritarrak, eta errezeloz hartu zuten neurria askok. Festa eredu berria sustatzea zen antolatzaileen asmoa. Erabaki ausarta izan zen, hasieran behintzat, iritzi publikoa aurka jartzeko arrisku handia izaten baita horrelakoetan. Dena dela, behin jaiak pasa eta distantziatik begiratuta, neurriarekin asmatu egin zutela uste dut.

Sanikolasetako lau egunetan lan egitea tokatu zitzaidan, eta ekitaldiz ekitaldi ibili nintzen, jaietako giroa argazkietan jaso nahian. Hala, harrituta geratu nintzen, izan nintzen ekitaldi gehienetan herritarren parte hartzea bikaina izan zelako. Haurrak eta gaztetxoak izan ziren jaiaren ardatza, eta familian eta lagun artean une atsegina igarotzeko egitasmo ugari egin ziren egun horietan. Aipatzekoak dira, esaterako, larunbateko Haurren Eguneko jolas libreek edota igandean Zingira eskolak antolatutako tailerrek izan zuten arrakasta. Azken ekimen horretan, hainbat txoko antolatu zituzten, eta normalean lantzen ez dituzten eskulanak egiteko aukera izan zuten etxeko txikiek, helduen laguntzarekin. Gustura ibili ziren haurrak eta helduak erremintak eskuetan hartuta.

Hemenbaen batukada taldearen saioak ere giro bikaina jarri zuen San Nikolas egunean, eta gaztetxoen patata tortilla lehiaketan, nerabeak sukaldean ikusi genituen, umorez beteta, erakutsiz sukaldaritzarako dohainak dituztela eta taldean lana bikaina egiten dutela. Bestalde, gaztetxoek ez ezik, guraso askok ere gozatu ederra hartu zuten Burrunba elektrotxarngaren doinuekin, garai zaharrak gogoratu.

Azken batean, herritik eta herriarentzat sortutako festak izan zirela iruditzen zait niri, eta herritarren erantzuna ere apartekoa izan zela.

Bukatzeko, tartetxo hau aprobeztatu nahiko nuke, herriko jaietan lanean aritu ziren herritarren lana azpimarratzeko. Gainontzekoek festaz gozatu zezaten, buru-belarri lanean jardun baitzuten, jaietan murgilduta zeuden askorentzat ikusezinak baziren ere. ■■■

SANIKOLASETAKO LAU EGUNETAN LAN EGITEA TOKATU ZITZ AidAN, ETA EKITALDIZ EKITALDI IBILI NINTZEN

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaletik)

943-53 64 94
697 23 86 56

libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Orpio elikatuz Bizi

Rita Zaldua (Zarautz, 1959)

TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

Hunkituta jaitsi du Itzala tabernaren pertsiana Rita Zalduak (Zarautz, 1959). Zarautzitarra da eta Zarautzen bizi da, nahiz eta 38 urtean Orion aritu lanean, Kultur Etxe alboko tabernan. 22 urterekin sartu zen barra horren atzera, eta aurten hartu du erretiroa, 60 urterekin. Azaroaren 29a izan zuen azken lan eguna, ixteko erabakia orain urtebete hartu arren.

Hogeita hemezortzi urte barraren atzean. Badira batzuk.

Bizitza oso bat da. Senarrak eta koinatuak jarri zuten taberna, eta askorik pentsatu gabe hasi nintzen. Lana zen, eta aurrez ere ibilia nintzen Getarian zerbitzatzen.

Gogoan duzu aurreneko laneguna?

Sanikolas bezperetan hasi ginen, abenduaren 3 edo 4 batean. Oso indartsu hasi ginen: taberna berria, festak, badakizu. Zoramena izan zela oroitzen dut.

Nolako izan da bukaera?

Orain urtebete pentsatu nuen hau izango zela azken urtea, eta joan naiz gauzak prestatzen. Bezeroei, ordea, ez nien esan bi egun lehenagora arte; ez nituen haien komentarioak entzun nahi. Eta, hala ere, aritu zaizkit *orain zer egingo dugu* eta halakoak esanez. Opariak egin zizkidaten azken egunean, eta azkenean hunkitu egin nintzen; ez ditut sekula ahaztuko. Bezero guzti-guztiak oroituko ditut beti. Penarekin itxi nuen, baina baita pozik ere.

Urte askoan bakar-bakarrik atera duzu aurrera taberna.

Bai. Senarra duela 13 urte hil zen, aurreko bi urteak gaixo pasa ondoren. Beraz, hamasei urte daramatzat bakarrik lanean. Eta egunean 15 ordu lan eginen. Baina bizitza horrelakoa da. Tokatu egin zait, eta kito. Gainera, oso gustura aritu naiz lanean. Bezero oso onak izan ditut, oso fidelak, eta familia handi bat bezalakoa izan gara.

Nolako izan dira Itzalako bezeroak?

Emakume talde bat egon da benetan alai. Norbaiten urtebetetzea zen bakoitzean kantu-kantari, beti umoreko... Karta-jokoan ere gizonak mahai ilara osoa aritzen ziren... Pena handia ematen didate. Noski, aurkituko dute ordezkoa,

baina zaila izango da gurean bezala, denak elkarrekin, punta batetik bestera hizketan aritzeko tokia aurkitzea. Giro polita zeukaten. Oroitzapen horiek guztiak neurekin eramango ditut. Gainera, oso maitatua sentitu izan naiz beti. Badituz bezeroak aurreneko egunetik datozenak; 22 urteko neskatoa nintzen hasi nintzenean, pentsa. **Taberna Orion, baina bizi Zarautzen; joan-etorrian egunero. Autoz?**

Hara, gidabaimenik ere ez nuen atera, beti senarrarekin egiten nuelako joan-etorria. Ez duzu uste ezer pasako denik inoiz. Hil zenean, 11-12 urte pasatu nituen trenez etortzen; 06:20eko tren hartu eta azkenekoan itzultzen nintzen, 22:15ekoan.

Korrika eta presaka.

Beti korrika eta presaka. Gero, nire koinatua, Juantxo Eizagirre, jubilatua egin zen, eta azken sei urteetan izugarri lagundu dit hark. Ekartzen nau, mahaiak ateratzen dizkit, gero joan egiten da, gero itzuli... Zoragarria. Izan ere, beldurgarria da egunero zubi hori eurlan eta haizearekin gurutzatzea.

Eta orain zer egin behar du zure koinatuak?

Ene! Gustura asko hartu du nire erabakia! 67 urte baditu jada, eta berak ere nahi du jubilatua, eta ez eduki betebeharrak hori. Badakit gustura egin duela, eta pila bat eskertzen diot, baina...

Hamabost orduz lana egitetik taberna ixtera pasatuta, zertan erabiliko duzu orain zure denbora?

Goizean, edozein etxeko andreak bezala, etxeko lanak egiten ditut, bueltatxo bat eman...

Arratsaldeetan, berriz, biloben bila joaten naiz, 4 eta 7 urte dituztelako. Horiek arratsalde osoa hartzen didate, ez dago aspertzeko denborarik. Ondo, gozatzen ari naiz. Gerora iritsiko da kanpora irten ahalko dudana garaia ere. Izan ere, orain gure 93 urteko ama etxean daukagu.

Oraintsu pasatu zara zure taberna izandakoaren aurretik. Zer sentitzen da pertsiana jaitzita ikustean?

Sentitzen duzu barrenean zerbait. Batzuek esaten dute tristura ematen duela kaleak, tabernarik gabe, zonalde honetako azkena zelako eta beti zegoelako jendea kanpoan. Komertzio txikiak alaitu egiten du herria, eta ikusiko dugu norbait animatu eta hartzen duen lokala. ■■■



Argazkilariaren erronka

ARGAZKIA: ROSANA ARRUTI

TESTUA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Rosana Arruti argazkilariak erretratuak jorratu ditu nagusiki bere ibilbidean zehar. “Orain arte pertsonak ardatz dituen argazkilaritza landu dut, baina nire konfort-eremutik atera nahi izan dut, eta beste mota bateko argazkiak jorratzen ere hasi naiz, etxekoan laguntzarekin”. Hala, paisaia eta sorkuntza uztartzen dituen argazkia aukeratu du Arrutik Izpiak eta Hizkiak atalerako. “2018ko urrian argazki sorta bat egin genuen Iratiko basoan. Sormen prozesua eskatzen duen argazkilaritza saioa egitea zen helburua, eta egunerokotasunean aurki daitezkeen objektuak naturan uztartzen saiatu nintzen; alegia, natura eta kulturaren arteko oreka aurkitzen”. Argazkilari oriotarra “oso gustura” dago emaitzarekin, eta herritarrekin partekatu nahi izan du bere lana. ■■■





Aiari begira lanean

AIAKO EH BILDU

Aiako EH Bildu osatze dugun herritarrok, maiatzetik hona bitartean Aiako udalera begira egin dugun lanaren laburpen txiki bat eskaini nahi dizuegu.

Udalari dagozkion zenbait kontutan ikuspuntu bera izan ez arren, bi alderdiek, aiar guztion hobe beharrez lanean jardun beharko genukeela sinesten dugulako, hasiera-hasieratik, lan talde berritik, elkarlanerako borondatea adierazi genien, eta horrekin batera, gure jarrera udal gobernuari horretan eskua luzatzea izan da.

Zenbait proiektutan aintzakotzat hartu dituzte gure ideiak, ekarpenak eta nahiak, esate baterako: Igerilekuko birmoldatze proiektuan, bereziki, irisgarritasunari garrantzi handia emanez. Aiara eta pertsona guztien onurarako, oztopo fisikorik gabeko igerileku bat izatea da lehentasuna. Lur- Alkartasuna Kooperatiba ere, udalari diru-laguntza eske etorri zenean, udala osatzen dugun bi alderdiek ontzat eman genuen laguntza ematea, eta

ZENBAIT PROIEKTUTAN AINTZAKOTZAT HARTU DITUZTE GURE IDEIAK, EKARPENAK ETA NAHIAK

aurrerabidean elkarrekin lan egiteko, hitzarmen bat osatzeko... konpromisoa erakutsi genuen. Eta azken adibidea, udal aurrekontuetan Aiako EH Bilduren baiezko botoak izan ziren, benetako elkarlan baterako. Borondate adierazpen garbiena. Nahiz eta jakin herritarren zenbait nahi eta eskaera zintzilik geratu direla, uste dugu Aiako EH Bildun lanerako dugun jarrerak emaitza positiboagoak emango dituela etorkizunera begira aiarrentzat.

Pauso txiki eta ziurrak ematen ari gara, eta egiten ari garen bide horretan, aiar guztion laguntza ere beharrezkoa da. Gure lan taldeak, atea irekiak ditu, zuen eskaera, kexu eta ideiak partekatzen. Asteartero biltzen gara Aiako udaletxean, arratsaldeko 19:00etan.

Guztiok elkaturik herriago gara, guztiok egiten dugu herria. Bertan ikusiko garelakoan, talde honek, Gabon zoriontsu eta Urteberri on bat opa dizue.

Jostailu trukea hamargarrenez

HERRIO NATUR-TALDEA

Plazako txapelpetik Kultur Etxearen goxotasunera joan gara aurtengoan. Aurretik etxeko lanak ongi eginak genituen, eta ikastetxeetan eta Kultur Etxean bertan, jostailu erabili mordoak bildua genuen.

Horregatik, mahai oparoa izan genuen pasa den larunbat

goizean (abenduarien 14a). 10:30erako Kultur Etxeko atea ireki zain, ilara egina zuten hainbat herritarrek. Badakite-eta orduan izaten direla jostailu onenak txartelekin trukatzeko.

Jostailu asko etxeetara joan baziren ere, beste asko geratu ziren gurekin. Hortaz, aurten ere Ahmed-ekin harremanetan jarri gara, eta, Sahararako bidea hartuko dute laster.

Datorren urtean ia herrian geratzeko modua egiten diegun. Hemen ere izango da eta premia.

Gabon goxoak pasa. Oparoak maitasunean, xumeak materialean.

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

LERA TALDEA

Gabonak gainean ditugunez, ekitaldietan izango diren aldaketen berri eman nahi dugu gutun honen bidez.

Herri erdialdeko lanak direla eta, Olentzero eta Mari Domingiren harrera lekualdatu dugu, eta aurten, Pietateko parean izango da ekitaldia, estalpearen azpian.

Orduetegiaren ere aldaketa izango da. Arratsaldeko 15:30ean emango diogu hasiera ospakizunari Arkupe Elkarteak banatuko duen txokolatearekin, Antila tabernaren parean. Jarraian sorginak jaitsiko dira aldapan behera eta haurren eskutitzak jasoko dituzte. Harrera handiaren aurretik bisita berezia jasoko dugu

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko, KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



Mari Domingi eta Olentzero.

herritarrok, Mari sorgina eta Basajaun etorriko baitira gurera, adarjole eta txalapartariekin batera, eta ttuntturroek herriko kaleak alaituko dituzte.

Olentzero eta Mari Domingi 18:30ean iritsiko dira herrira, aldatatik behera. Lasai, denentzat izango da lekua, Loterietako parean zirkulazioa itxi egingo baita eta herritar guztiok izango baitugu ospakizuna ikusteko tokia.

Ohi bezala, harrerarekin batera desfilea egingo dugu animaliekin batera. Pietate paretik hasi eta Bikamiotaraino joango gara, eta buelta. Ordu erdi ingurukoa izango da.

Dakizuen bezala, urteroko ospakizun hau aurrera eraman ahal izateko boluntario askoren laguntza behar izaten dugu. Taldeak nahiko osatuta baditugu ere, baten batek parte

hartzeko interesa balu, talde irekia gara eta gustura hartuko genuke gurean. Nahi izanez gero, Kultur Etxera gerturatu eta Imanol Urkizuri jakinaraztea nahikoa izango da.

Gabon zoriontsuak izan!

ARKUPE ELKARTEA

Arkupe Elkarte osatzen dugun herriko merkatariok eskerrak

ZORION AGURRAK



Zorionak Laredo eta Marilu!

Urrezko ezteiak bete dituzte abenduaren 13an, eta 14an ospatu dituzte familiaz eta lagunez inguratutik. Egun polita eta emozioz beterikoa izan zen. Kruzero batean jarraituko dituzte ospakizunak familia osoak. Bejondeizuela pareja!

eman nahi dizkiegu oriotar guztiari urtean zehar gudan izandako konfiantzagatik. Horrekin batera, Gabon hauetan beti bezala komertzio txikiaren aldeko apustua egitearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Besterik gabe, Gabon zoriontsuak eta Urteberri on opa dizkizuegu! ■■■

JAIOBERRIAK

- Kala Gaiton Arruti. Orion, abenduaren 1ean.
- Ane Mujika Solano. Orion, abenduaren 3ean.
- Xune Murua Aiestaran. Orion, abenduaren 5ean.

HILDAKOAK

- Matias Vicente Manterola. Orion, abenduaren 4an. 94 urte.
- Jose Manuel Elizondo Sarasua. Orion, abenduaren 9an. 62 urte.
- Manolita Azkue Korta. Orion, abenduaren 9an. 90 urte.
- Asuncion Lopez de Zubiria Larraza. Orion, abenduaren 12an. 97 urte.
- Maria Teresa Maritxalar Lizaso. Aian, abenduaren 30ean. 81 urte.
- Jexux Saizar Makazaga. Aian, abenduaren 1ean. 71 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatik@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatik.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Aristerrazu
Jatetxea

Andatza auzoa · AIA
 943-83 45 21
 www.aristerrazujatetxea.com

edaritegia
Antilla jatetxea

Abeslari kalea, 2
ORIO
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak

arkaitz taberna
 ... orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

Carmen eta Txomin
 ARRAINDEGIAK

TXOMIN ARRAINDEGIA
 Eusko Gudarien kalea, 44
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
 Arizaga kalea
 943-83 05 37

IZARRA ELEKTROGAILUAK

INOR EZ DADILA GABONETAKO OPARIRIK GABE GERATU, ETOR ZATTEZTE GURE DENDARA

Eguberri eta Urteberri zoriontsuak opa dirizkizuegu

TIEN 21
 Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
 943-83 38 81
 izarraelectrodomesticos@gmail.com

auto **azkue**

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

Zarautz
 Hileta Zerbitzuak
 Beilatokia
 Lekualdatzeak
 Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35, ZARAUTZ
943-89 49 37
 zarautz@harrespil.net
 harrespil@harrespil.net

Harrespil
 Hilerri eta Hileta Zerbitzuak
 Hilerrien kudeaketa
 Aldioroko lanak
 Harrianak

Zer eskatzen diozu urte berriari?



ESTIBALIZ BRAVO

Bakea eskatuko nioke, dena oso nahastuta baitago. Gizartea oso manipulaturik dagoela iruditzen zait. Ni neuzko oso kritikoa naiz boterean daudenekin, politikariek eta komunikabideekin, baina beste askok joera nagusiak jarraitzen dituztela iruditzen zait, botere-tsuen mesedetan. Politikariak eta komunikabideak ere manipulaturik daude; ahal dutena egin edo esaten dute, ez nahiko luketena. Hori dela-eta, herritarrok elkar entzuteko eta ulertzeko ahalegina egin beharko genuke, gizarte arloan gauzak hobetzeko aukera bakarra baita. Lehen aldaketa norberak egin behar du, gauza txikiekin gizartea aldatu baitezakegu.



JOSE MANUEL GOZATEGI

Lehenik eta behin, urte berriari eskatzen diodana da osasuna. Hori da gauza guztietan garrantzitsua. Eta bigarrenik, lantokian 2020. urtea azken hau baino hobea izatea nahi nuke. Bide batez, herritarrei esan nahi diet, komertzio txikia bultzatu behar dugula denon artean. Gu, dendariok, ari gara horretarako lanean, baina saltoki handiek gu jan aurretik, zaindu egin behar dugu orain duguna. Komertzio txikia, gainera, herria bizirik mantentzeko era bat dela iruditzen zait. Lokal asko ditugu; irekita ez hainbeste, ordea. Eta zabalik jarraitzen dugunok, aurrera egin ezinik gabiltza azken urteetan. Hala ere, saiatuko gara aurrera jarraitzen.



AMAIA OLAZABAL

Herrian euskara indartzeko bidean, orain arte egin bezala, aurrerapausoak ematen jarraitu nahiko nuke. Orioko Euskaltegia euskaraz ikasi nahi duten guztien bidelagun izango da beti ahalegin horretan, eta ongietorriak izango dira herritarrek. Horrez gain, herritarrek euskara gehiago erabiltzea eta maitatzea ere gustatuko litzaidake. Euskaraldiak bultzada eman dio euskarari, baina ez du ariketa soilean geratu behar, gure egunerokotasunean ezinbestekoa izan behar baitu euskarak, eta erakundeek ere bultzada handiagoa eman beharko lioketela iruditzen zait, politika linguistiko egokiak sustatuz. ■■■

Agustin Aldalur

Aiako txistulari eta organo-jolea



IÑAKI ITURAIN

i-iturain@euskadi.eus

ARGAZKIAK: VALENTIN ALDALUR

Xalbadorren heriotzean da Xabier Leteren kanturik ezagunena, eta euskaldunon abestirik kantatuenetakoa. Xalbador bertsolaria jaioterrian hil zen, Lapurdiko Urepelen, 1976ko azaroaren 7an, bertsolari lagun guztiak ondoan zituela, haiek omenaldia egiten ari zitzaizkion egunean. Meza, *Odolaren mintzoa* bere bertsoliburuaren aurkezpena, bazkari jendetsua eta ondoren bertso saioa herriko frontoian. Horixe izan zen egun hartako programa. Xalbador oholtzaren gainean zela, momentuko bertsolari onenak berari kantatzen, hunkituta, emozioak gaina hartu zion, eta programatu gabekoa ekarri zuen: Xalbadorrek “Eniz ontsa” esanez handik jaitsi, herriko eskola-etxera joan eta bertan hil zen. Bihotza gelditu zitzaion, emozioa eraman ezinik.

Aian ere antzekoa gertatu zen 1990ean. Agustin Aldalur, herriko txistulari eta organo-jolea hil zen Urtezahar egunean. Aian ohitura dute urteko azken eguneko arratsaldean herriko bi elizetan elizkizun bana egiteko segidan: parrokiari hasi, handik letaniak

kantatuz prozesioan Aizpea ermitara jaitsi eta, han, bigarren elizkizuna, igarotako urte zaharragatik eskerrak emateko. 1990eko abenduaren 31n, ohi bezala, Agustin organoa jotzen ari zela atera ziren eliztarrak herriko San Esteban elizatik eta, haiek prozesioan zihoazela, berak eliz atzeko eskailetako bide laburragoa hartu eta berehala iritsi zen Aizpeako ermitara, eta han organoa joz hartu zituen herritarrak. Meza hasita, hirugarren pieza jotzen ari zela, bihotza gelditu egin zitzaion Aldalurrei, Xalbadorri bezala. Horrelaxe hil zen, gustukoa zuena eginez, organoa joz, 54 urterekin.

Biharamunean izan zen hileta, urtarrilaren 1ean. Urteberri eguneko arratsaldean, jendea herriko elizan sartzen ari zela, Agustinen arreba ikusi zuten plazan korrika. Pello medikuaren bila zihoan, haien ama ondoezik jarri zela-eta. Gertatu zen etxean anaiak-eta hilkutxa bizkar gainean hartu

**SAL TSA GUZTIETAKO
PERREXILA ZEN, OSO
HERRIZALEA. HERRIA
MAITE ZUEN ETA
HERRIAK MAITE ZUEN**

eta kalera ateratzen hasi zirenean, hari begira zegoen amaren bihotzak ezin izan ziola eutsi momentuko zirrarrari eta zerraldo erori zela, semearen hilkutxaren aurrean. Medikua etxera iritsi aurretik hil zen ama ere.

Gaur semea, bihar ama

Hala ere, semearen hiletarekin aurrera egitea erabaki zuten. Patxi Danbolinek jo zuen umezurtz geratutako organoa, hileta-elizkizunean. Biharamunean, urtarrilak 2, egin zen 82 urteko Maria Josefa Orbegozorena ere, Agustinen amarena. Heriotza ere bizitzaren parte den aldetik, umorez hartuta, herriko batek hala esan zuen: “Amak semea ekarri eta semeak ama eraman”, Agustin zenaren anaia Valentinek kontatu digunez. Aldalurtarren hamar senideko familian, lau gizonezkoak musikazale amorratuak izan dira beti. Bigarrena zen Agustin eta horixe egin zuen bizitza guztian: musika. Hamabi urterekin hasi zen ikasten Zarautzen, hamaseirekin Aiako elizako organoa jotzen. Txistua, danbolina, eskusoinua eta dultzaina jotzen ere ikasi zuen. Elizako organo-jolea eta herriko txistularia izan zen. Herriko festetan, goizean goizetik



Agustin Aldalur, Aiako elizako organoa jotzen. Horixe zuen maite.

ibiltzen zen txistua joz, esna-
deia edo dianan. Aizpea dantza
taldea sortu zuen herrian; haren
bidez iritsi ziren herriko hainbat
gazte dantza egitera Euskal
Herriko txoko askotara: Maule,
Baiona, Gasteiz, Pasaia...

Herriko kooperatiban egiten
zuen lan, harakin. Manuel
Aizpurua apaizak tratua egin
zuen Aldalurrekin: *hik jo ezak
organoa elizan eta nik
lagunduko dizuet Alkartasuna
kooperatiban*. Horrela hasi zen
Agustin organoa jotzen. Saltsa
guztietako perrexila zen, oso
herrizalea. Herria maite zuen
eta herriak maite zuen. Sasoi
beteko gizona, Herniora sarri
igotzen zen 54 urteko gaztea.
Gehien betetzen zuena egiten
hil zen, organoa jotzen. Xabier
Letek Xalbadorri kantua nola,



Kantuz bizi naiz eta, kantuz naiz bizi, kantuz igotzen dituk nik penak ihesi.

halaxe jarri zuen Aiako herriak
oroitarri bat herriko plazan,
elizako paretari itsatsia.
Oroitarrria 1991ko abuztuaren

11tik dago han ipinita, harlandu
batean, Agustin txistulariaren
irudi batekin eta Jose Mari
Lertxundiren bertso luze bezain



Agustin maite, joan zinen baina gure herriak ez zaitu inoiz ahaztuko.

errima estuko batekin atondua, Aldalurren oroigarri. Hauxe da bertsoa:

Agustin maite urrezko izkiz zaitugu guk aurkeztuko Aiako erria zuk ainbat inork ez baitu aberastuko ematen ziñan biotz zabala artutzen berriz estuko txistu ta dantzan gazteak jartzen jendea nondik poztuko ta eleizetan zu organista ain borondate prestuko zure izena nola ez degu guk bertsotan abestuko aurrerantzean izan nai degu zugan arremman estuko jun ziñan baña gure erriak etzaitu inoiz aztuko.

Musikak gizabanakoarentzat ez ezik gizartearentzat ere garrantzi handia du. Horixe

adierazi nahi izan zuen Jose Mari Lertxundik ere Aldalurrentzat sortu zuen bertsoan: zer nolako ekarpena egin zion Agustinek bere herriari, Aiari, musikaren bitartez, elizan organoa eta kalean txistua joz: *Kantari bizi den herria ez da inoiz hilko*. Beste gauza bat ere erakutsi zuen Lertxundik bertsoaren bidez: bere adiskideari zion maitasuna.

Xabier Lizaso piano-jole oriotarrak askotan aipatzen du musikaren indar terapeutiko

LIZASO PIANO-JOLEAK ASKOTAN AIPATZEN DU MUSIKAREN INDAR TERAPEUTIKO SENDATZAILEA DELA

sendatzailea, baita sentimenduak azaleratzeko daukan ahalmena ere. Batzuetan gertatu izan da musikak sortutako emozioak gaina hartu eta musikaria bertan hiltzea ere.

Horixe bera egokitu zitzaion Xabier Otaegi musikariari ere 2016ko maiatzaren 7an.

Zegamako elizan, jaioterrian, kontzertu baten zuzendari lana egiten ari zen bi abesbatzarekin: Zegamako Orkatz eta Kataluniako San Sadurní d'Anoiakoa. Kontzertua bi abesti ezagunekin bukatu zuen: *Kantuz eta Maite zaitut*. Azken abestia emazteari maitasuna aitortzeko baliatu zuen: "Maite zaitut". Kantu hura amaitu berritan, herritarrak txaloka hasita, denen aurrean hilda erori zen, 49 urte zituela.

Heriotzak kantuaren bidez eraman izanak berdintzen ditu Xalbador bertsolaria, eta Xabier Otaegi eta Agustín Aldalur musikariak, gustukoena egiten hil zirela. Hobeto hiltzerik ba al dago? Plazera ematen dion horretan, zirrarak jota, bihotza gelditu. Beste gauza batek ere batzen ditu hirurak: maitatzeko zuten ahalmen handia, beren lanak besteengan sortzen zuen hunkidura, eta batez ere, haiek beraiek zenbateraino hunkitzen ziren. Hala, "Aunitz maite duenak aunitz sufritzen du", utzi zigun Xalbadorrek idatzita betiko, bere bertso hunkigarri batean. ■

BODEGAS

Gailur

01307 BANCOS de EBRO
Tel./Fax: 093 60 91 58
www.bodegagailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Selección Tradicional
DENOMINACIÓN DE ORIGEN

Tel.: 943-83 03 86 · Fax: a: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net www.txakolizudugarai.com



Zerbitzu teknikos
24 ordu

fontana
iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak





- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Plaza Endaia, 1 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28



Joseba

ARROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

ATEAK

ZOKALOK

ARMAIRUAK NEURRIRA

LEIHOAK

ESKAILERAK

ARROZTEGIA OROKORREAN



LASTER DESATASCOS

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com

24 ordu 688 886 536 (Larrialdiak)

- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatutako hodien garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- ...

Abaromendi 3 · 20810 ORIO
Sagar Erreka 21-A · 20590 SORALUZE
943-75 14 31 (Bulegoa)

Gabor

TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA



Izozki naturalak Opilak

GELATO

943-57 81 76

Herriko enparantzan



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajereros@yahoo.es
www.iglesiascerrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

24 orduko
zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



Garraio frigorifikoa Nazionala eta Nazioartekoa

generoa



garraioak





kamarak



ibilbideak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Munduan zehar bidaia, Gabonetako ospakizunetan barrena

Gabonak ate joka dira, eta horrekin batera apaingarriz, argiz eta opariz bete dira Aiako eta Orioko etxeak eta kaleak. Bereziak izaten dira herritarrentzat, familian eta lagun artean igarotzeko egunak baitira. Hori dela-eta, normala izaten da atzerrian bizi diren herritarrak Gabon garaian sorterrian ikustea.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta, Intza Unanue Arruabarrena eta Dorleta Agiriano Lai.**

Dena dela, esanahi bat baino gehiago dituzte Gabonek, kristautasuna eta mito paganoak uztartzen baitira egun horien bueltan. Alde batetik, Jesusen jaiotza ospatzen dute kristauak, baina azken urteetan, indarra hartu dute Olentzerok eta Mari Domingik ere. Azken horiek euskal mitologiako pertsonaiak dira, antzinako euskaldunek neguko solstizioaren etorrera ospatzeko sortuak.

Abenduaren 20an iritsiko dira aurten Aiara, eta abenduaren 24an, Gabon egunean, helduko dira Olentzero eta Mari Domingi, Basajaun eta Mari, Oriora.

Euskal Herrian bezala, munduko txoko askotan ospatzen dituzte Gabonak, baita kristauak ez diren herrialdeetan ere. Orioko bi ikastetxeek antolatzen duten Gabon eguneko eskean ere jatorri eta kultura anitzetako haurrek eta gaztetxoek parte hartzen dute. Horietako bakoitzak Gabonak ulertzeko eta bizitzeko modu desberdina badu ere, Gabon eguna herritarrak elkarrekin kalera ateratzeko eta kantuan une atsegina partekatzeko aitzakia aproposa izaten da.

Euskal Herriko usadioak herritarren artean ezagunak diren arren, gutxi dakigu beste jatorri batzuetako aiarren eta oriotarren Gabonetako ospakizunez. Izan ere, herrialde bakoitzean beren ohiturak eta pertsonaiak dituzte, tokian tokiko kulturak zeharo baldintzatzen baitu Gabon egun horiek ospatzeko modua. KARKARA Aiako eta Orioko hainbat bizilagunekin bildu da, Gabonak nola ospatzen dituzten ezagutzeko.

Chen familia

Chen familia duela lau urte iritsi zen Oriora, baina ia bi hamarkada daramatza Euskal Herrian. Jatorriz Txinako Zhejiang probintziako Wenzhou hirikoak badira ere, Iruñean bizi izan dira urte askoan; han dute familia, eta Nafarroako hiriburuan ospatzen dituzte normalean jai egun garrantzitsuak. Kristauak dira erlijioz, eta Gabonak ez dira arrotzak eurentzat. “Gaur egun, globalizazioaren eraginez, mundu guztira zabaldu dira Gabonak, eta Txinan gazteak ere hasi dira ospatzen. Opariak egiten dituzte, eta Bizazuriren txapela jantzita ere ikus daitezke asko. Hala ere, ni txikia nintzenean kristauok bakarrik ospatzen genituen Gabonak. Hiriko elizan biltzen ginen, eta bertan kantatu eta dantzatu egiten genuen, jai giroan. Eliza apaintzen genuen, baina kaleetan eta etxeetan ez zen Gabonetako apaingarririk egoten”, azaldu du Ye Chen-ek, familiako amak.

Euskal Herrira etorri zirenean, beren ohiturekin jarraitu zuten, eta Gabonzahar eguna familiarekin eta lagunekin ospatuko dute aurten ere. “Portugalen bizi den lagun bat eta haren familia etorriko dira gurera, Gabonak ospatzera. Afari berezia egingo dugu. Askok pentsatzen dute plater txinatarrak bakarrik jaten ditugula, baina ez da horrela, urte asko daramatzagu hemen bizitzen eta Txinako eta bertako gastronomia uztartzen ditugu: itsaskiak, txerri txikia edo arkumea labean erreta,



Chen familia.

fideo txinatar salteatuak, ahate-hanka... jaten ditugu”, azaldu du.

Gabonak bezala, Urtezaharra ere garrantzitsua izan ohi da txinatarrentzat. Egutegi txinatarra ez dator bat Mendebaldean jarraitzen denarekin, eta aurten urtarrilaren 25ean sartuko dira urte berrian: arratoiaren urtea izango da datorrena. “Guk Txinako Urtezaharra ospatzen dugu. Egun berezia izan ohi

TXINAN SU ARTIFIZIALAK BOTATZEKO OHITURA HANDIA DUTE. KOLORE ETA FORMA DESBERDINETAKOAK IZATEN DIRA

da, eta gure herrialdean festa handiak antolatzen dituzte gau horretarako”.

Munduko txoko gehienetan bezala, bapo jan eta edaten dute txinatarrek ere gau horretan. “Su artifizialak botatzeko ohitura handia dugu. Kolore eta forma desberdinetakoak izaten dira, benetan ikusgarriak”. Askok gustatzen zaizkie, baina egun, segurtasun kontuengatik, debekatuta daudela azaldu du. “Txinako hirietan su artifizialak botatzea galarazi egin diete herritarrei, hiri guztia kez betetzen delako eta arriskutsua delako. Herrietan, berriz, egun horretan bakarrik bota daitezke, beraz, su festa ikusgarriak ikusten dira Urtezahar gauean”.

Uztaetaburu baserriko Arantxa Eizmendi eta Eneko Balerdi

Uztaetaburu baserria ezaguna da aiarren artean, Gabon Eguneko eskean ezinbesteko parada baita aspalditik. Ezagunak dira, era berean, Arantxa Eizmendik mokadutxoa egiteko eskaintzen dituen kroketak eta patata tortilla ere. Hala, Eizmendiren seme Eneko Balerdik aitortu du ez duela ezagutzen “Uztaetaburun baino azkarrago abesten den Gabonetako kanturik. Gaztetxoak etxera sartzeko irrikitan izaten dira, janari goxoarekin indarrak berreskuratuzeko”.

Hainbeste lagunentzat hamaiketakoa prestatzea lana bada ere, “oso gustura” egiten du Eizmendik. “Pozgarria da egun horretan herritarren bisita izatea. Urte batean oso lanpetuta nengoen, baserriko lanez gain ama ere gaixo nuelako, eta betiko kroketak eta patata tortillak prestatu beharrean, dendan litxarkeria batzuk erosi nituen, gazteei gustatuko zitzaizkiela pentsatuz. Hura aurpegia jarri zutena, baserrira sartu eta mahai luzea ikusi zutenean”. Ordotik, ez du gehiago hutsik egin, eta dena prest izaten du gaztetxo taldea iristerako. “150 kroketa inguru prestatzen ditut egun horretarako. Lana bada ere, gaztetxoen irribarrea eta ilusioa dira egindako ahaleginaren ordaina”. Gainera, Balerdik azaldu du gazteek jaten ez dituzten kroketak familiak jaten dituela,



Eneko Balerdi eta Arantxa Eizmendi.

“batzuk, Gabonetako ohiko otorduetan, eta beste batzuk izeba-osabek edo lehengusuek eramaten dituzte etxera; ohitura baita, baserrira bisitan etorritakoan, bertako produktuz osatutako poltsarekin etxera itzultzea”.

Gabon egunaz gain, Urtezahar gaua ere berezia izan ohi da Uztaetaburun. Baserri askotan bezala, aiton-amonak ez daudenetik, lehen baino gutxiago biltzen dira, baina Uztaetaburun

**EZAGUNAK DIRA
ARANTXA EIZMENDIK
MOKADUTXOA EGITEKO
ESKAINITZEN DITUEN
KROKETAK ETA PATATA
TORTILLA**

oraindik badituzte bizirik dirauten hainbat ohitura. “Txikia nintzeneko Gabonen oso oroitzapen politak ditut. Izeba-osabak eta lehengusuak etortzen ziren baserrira, eta gauean helduak etxera joaten baziren ere, haurrak hemen geratzen ziren gaua pasatzen”, adierazi du Balerdik. Gaur egun, lehengusu horietako asko gurasoak dira, euren familiak dituzte, eta baserrian “nahi baino gutxiago” biltzen badira ere, Urtezaharreko usadioari bizi-bizirik eusten diote. “25-30 lagun inguru biltzen gara, eta gau berezia izaten da. Bapo jaten dugu, eta familiako hiru belaunladitako trikitilariak biltzen garenez, eskusoinu txikiaren doinuak afaloste ederra pasatzen dugu”.

Coon familia

Coon familia aski ezaguna da Orion: alegia, Emily eta Jason senar-emazteak, eta Braden, Brittney, Taye eta Cooper seme-alabak. Estatu Batuetatik etorri ziren gurera. Han, haur eta gaztetxoentzako udalekuetan egiten zuten lan. Euskal ikasleak izaten zituzten maiz, eta horrela ezagutu zuten Euskal Herria eta gure hizkuntza.

Etorri orduko ekin zioten euskara ikasteari eta baita herritarrak ezagutzeari ere; berehala bihurtu ziren oriotar. Urteak daramatzate gure artean, eta jaioterritik dakartzaten ohiturei eusten badiote ere, euskal kulturak eragina izan du beraiengan.

Coon familiak azken urteetan herrian igaro dituzte Gabonak, Emilyren gurasoekin batera. Familiarentzat Gabon gaua eta Eguberri eguna dira berezienak. “Abenduaren 24an, film amerikarretan ikusten den bezala, ohitura da galtzerdiak tximinia gainean jartzea. Orion ez dugu tximiniarik, eta beraz, armairu batean jartzen ditugu”, azaldu du Jason Coon-ek. Galtzerdietan opari txikiak jartzen dituzte; “liburuak, galtzerdiak, kamiseta bat...”. Hurrengo egunean, Olentzero edo beraien Bizar Zuriren opariak irekitzeari ekiten diote. Eta, nola ez, Estatu Batuetako ohiturari jarraituz, *gofre*-ak jaten dituzte.

Hemen igarotako lehenengo jaietz gogoratzen da Coon. “Gabon gauean plazan egiten



Braden, Brittney, Taye eta Cooper Coon. UTZITAKOIA

den antzerkia oso polita iruditu zitzaigun aurreneko aldiz ikustean. Orain ere asko gustatzen zaigu”. Izan ere, Estatu Batuetan 24a eta 25a etxean pasatzen ditu jendeak, familiako planak egiten. Hemen, ordea, “zerbait hartzen da aurretik lagunekin, eta ondoren familiaren txanda izaten da. Oso polita iruditzen zait ohitura hori”.

Kontsumismoaren oso aldekoa ez bada ere, onartu du faltan botatzen dituela bere jaioterriko Gabonetako argiak: “Estatu Batuetan dena

**JAIOTERRITIK
DAKARTZATEN OHITUREI
EUSTEN BADIOTE ERE,
EUSKAL KULTURAK
ERAGINA IZAN DU
BERAIENGAN**

liluragarria da. Auzoetan ere asko apaintzen dira etxeak. Hori da hemen faltan botatzen dudana”. Argi gehiago jarriko lituzke Coonek.

Familiaren ohitura askorik aldatu ez bada ere, orain Errege eguna ere ospatzen dute. “Errege magoen desfilea ere ikaragarri gustatzen zaigu, eta hemen egun hori ospatzen duzuela ikusita, geu ere egunari garrantzia ematen hasi ginen, seme-alabengatik batez ere, opariak izan ditzaten”.

Hemengo lagunek ere hartu dituzte Coon familiaren ohiturak. Hala, Thanksgiving Day (eskerrak emateko eguna) ospatu dute aurten ere Balea elkartearen lagunekin batera Gabonei hasiera eman zioten ospakizun horrekin. “Guretzat oso berezia da guk ekarri dugun ohitura bat lagunekin partekatu ahal izatea”.

Onetsine Arrizabalaga

Onetsine Arrizabalagak zortzi urte daramatza herritik kanpo. Alemania du bizileku. Urtero Gabonak igarotzera etortzen da sorterrira eta, oraingo honetan, tarte bat eskaini dio KARKARARI abenduko eta urtarileko ospakizunez hitz egiteko.

Herritik kanpo bizi bada ere, Orioko tradizioari eusten dio: “Gabonak biltzeko garaia da niretzat, familian egoteko”. Urteko garai hau deskribatzerakoan argi du zein hitzek laburtzen duen dena: “magia” da. Arrizabalagaren hitzetan, “maite dituzunekin elkartu, pasa den urtea eskertu eta urte berria hasteko momentua” izaten da.

Aitortu du ez dela lagunak gehien ikusten dituen garaia, “oso familiarak” baitira Gabonak. Hala ere, izaten du tartea haiek ikusteko Gabon gau bezperako ekitaldian. Xarma berezia du Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak Arrizabalagarentzat: “Abenduaren 24ko iluntzea gustatzen zait gehien, oso magikoa da. Inguruko herrietatik ere lagunak etortzen dira Basajaun, Mari... eta pertsonaia guztiak ikustera”.

Kanpoan bizi denetik, urteko garai honek zentzu berezia hartu du: “Orain desberdin bizitzen ditut, Gabonetara etortzea etxera etortzea da. Etxean egon nahi dut, etxeaz gozatu”.

Alemaniako ohiturez hitz egiteko tartea ere hartu du. Han Gabonei abendualdian



Onetsine Arrizabalaga.

ematen diete hasiera, hilabetearen lehen igandean. “Gabonak baino lau aste lehenago apaintzen da dena, eta kandela bat pizten da. Bigarren astean bigarren kandela jartzen da, gero hirugarrena, eta azken igandean, laugarrena”. Abendualdian, horrez gain, gurasoek egunero zerbait prestatzen diete haurrei; “txokolatea egun batean, eskulanak egiteko materiala beste batean... gauza desberdinak jartzen dituzte egunero”. Ohitura polita iruditzen zaiola azaldu du, eta hona ere ari dela ohitura zabaltzen, baina “oso komertzialki”.

**URTEKO GARAI HAU
DESKRIBATZERAKOAN
ARRIZABALAGAK ARGI
DU ZEIN HITZEK
LABURTZEN DUEN
DENA: “MAGIA” DA**

Kantatzea ere gustuko dute Arrizabalagaren bizilekuan. “Hango kantu batzuek hemengo doinu bera dute, eta hasieran asko harritu ninduen horrek”. Gozozaleak ere badira, “tipikoa da pastak egitea, Plätzchen-ak, eta ingurukoei banatzea”.

Desberdintasun handiena, opariak jasotzeko egunetan dagoela azaldu du. “Alemanian Nikolas etortzen da goxokiekin eta opariekin, San Nikolas egunean. Gabon gaua ere ospatzen dute, baina garrantzitsuagoak dira hilaren 25a eta 26a beraiantzat, familian pasatzen dituzte”. Urtezaharra, berriz, “bakoitzak bere aldetik” ospatzen duela azaldu du.

Gabonetako merkatuak ere izan ditu hizpide oriotarrak. “Oso politak izaten dira, batzuk Erdi Arokoak dira eta ohitura da ardo goxo beroa edatea”. Gabonak familian pasatzekoak izanik, merkatuak aprobetxatzen dituzte lagunartean egoteko.

Fran Bermudez

Hamabost urte daramatza Orion Fran Bermudez nikaraguarrak. Bi etxe izan ditu: Somoto jaioterra eta Orio. Gabonetan, bietako ohiturek argitzen dute haren etxebizitza. Lokarria, senide artean egindako ospakizuna da. Lau seme-alaba ditu Bermudezek, eta Orion sortua da haietako bat: "Alabak ez ditu Nikaragua eta bertako tradizioak lehen eskutik ezagutu; beraz, saiatzen naiz hango ohiturak ere hemengo etxera ekartzen. Usadioak helarazi nahi dizkiot, haien berri izan dezan. Nire parte dira azken finean".

Gogoan ditu sorterriko hainbat ohitura, eta ez ditu baztertu eta ahaztu nahi. Esaterako, musikaren garrantzia nabarmendu du: "Nikaraguan, abenduaren 24a iristean, musika entzun daiteke etxe guztietan, eguerditik". Festaren atarian, musikak girotzen ditu nikaraguarren etxeak eta bihotzak, elkarrekin afaria prestatzen duten bitartean. "Banakako etxeak dira han, bereziak, eta ohikoa da familiak atarian biltzea, elkarren ondoan eserita edateko". Kantu artean iristen da afaltzeko ordua, eta ondorengo jaiak "ikaragarria" izaten da: "Nork bere etxean, gorputzak eusten duenera arte egiten dugu festa. Petardoak ere botatzen ditugu gauean".

Hurrengo egunean, afariko soberakin guztiak bildu eta errio ondora joan ohi dira familia asko, bertan jateko eta



Fran Bermudez.

edateko: "Kontuan izan behar dugu, Nikaraguan 25 gradu inguruko tenperatura izaten dela Gabonetan. Ezohikoa da, hortaz, 25ean etxean geratzea".

Urtarrilaren 1ean ere errio bazterrean agurtzen dute urte berria; horren aurretik, baina, urte zaharrari esaten diote agur abenduaren 31n.

Horretarako, amaitzean den urtean "atseginak" izan ez diren elementuak bildu, eta

**NIKARAGUAN 25 GRADU
INGURUKO
TENPERATURA IZATEN
DA GABONETAN.
EZOHIKOA DA, HORTAZ,
25EAN ETXEAN
GERATZEA**

panpin bat egiten dute, paperez eta petardoak betea: "Pasa berri den urte horretako oroitzapen txarrak eta ezabatu nahiko genukeen orenen sinboloak erabilita, panpina sortu, egunean zehar kalean jarri eta gauerdian erre egiten dugu". Ohitura hori ez du Oriora ekarri Bermudezek. Bai, ordea, askotariko jaki tradizionalak: adibidez, oilasko betea, arroza valentziar erara, edo nacatamal jakia. Arto irinarekin egindako oreka da, barazkiak edota haragia gehituta. "Banana hosto batean biltzen eta egosten dugu nahasketa, azaldu du.

Bermudezen eskutik, beraz, Nikaraguako eta Euskal Herriko usadioek bizitza hartzen dute Gabonetan, elkarlotuta. ■■■

“Herritik eta herriarentzat” sortutako sanikolasak

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AIORA
LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Berrikuntzaz beterik iritsi dira aurren San Nikolas jaiak. Festa eredu berria sustatu nahi izan dute antolatzaileek, eta horretarako, adin guztietara egokitutako ekintza sorta zabala prestatu zuten sanikolasetarako. Hala, haurrak eta gazteak izan dira jaiaren ardatza, eta familian eta lagun artean une atseginak igarotzeko ekitaldiak antolatu zituzten. Oriotar askok nabarmendu du «herritik eta herriarentzat» sortutako jaiak izan direla, eta jendetza bildu da antolatuta zeuden ekitaldietan. ■





PUBLIZITATEA

Lizaso Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

niko taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

MARIBO



ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29

Katu Horia



albataritzaklinika

ESTROPALARZ, 10
20810 ORIO
+34 943 11 66 99

Larrialdia:
668891129

Kolon Txiki



edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

JOSTAILU BIZKETA
ABENDUAK 16-29



nire denbora eta gurea izateko
"jalatu eta bonelin" nire is-
torizak" sortzeko jostailu bat
opari jaradazu. by BPXport

kutixi kafetegia



Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

KORTABERRI
arotz lanak



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

LAGUNDU PLASTIKOAK MURRIZTEN

- 1- Zuzenean otarrean sartu produktua
- 2- Behar baduzu, eskatu eta eraman etxera gure poltsa berrerabilgarriak
- 3- Hurrengoan, etxetik ekar ditzakezu poltsak

GOZATEGI



FRUTADENDA

BIO

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

MENDIZABAL AROZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
meNdi@arotzgi.net

Egin zaitez KARKARA laguntzaile

Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako.
 - Hilaro nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
 - Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
 - **KARKARA**laguntzailearen abantailez gozatu nahi dudalako.
- KARKARA**laguntzaile izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.

AZAROKO

ZOZKETAREN

IRABAZLEA:

Katxiña upategia jatetxearen eskutik bi laguntzako otordua



Idoia San Sebastian Corta

Hil honetako
KARKARA laguntzaile
zozketak:



**Benito Lertxundiaren
liburua+diskoa**

2 ale
Orioko Udalaren eskutik



Kultur bonoa


Euskarazko produktuentzat +
gastelaniazko produktuentzat

Ontza paper dendaren eskutik

PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik urtarrilaren 3ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAKo hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARA laguntzaile eta KARKARA laguntzaile berrientzat bakarrik.

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...



**HARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDAITEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

PAKO IMAZ



pertsianak

**aluminioa
motorrak
automatismoak
PVC**

943-13 29 01 · 600 70 52 27
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



**Orioko
Herri
Ikastola**

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

**SU
KIA**

TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



%100 etxean egina

**PIZZERIA
KALETA**

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkontza.net



Portu
Erretzea - Jatetxea

Kazolitak, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34


Ttipi





Eusko Gudarien, 15
ORIO
943-25 96 95

ttapa

Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza



lbai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinerгияfisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, amas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikook, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, amas fisioterapia, kinesooping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Paperean irakurtzea errebeldia delako



EGOITZ DORRONSORO

Harremanak irudien bidez gauzatzean eta bizitza irudiek ordezkatzean, espektakuluaren gizarte bat sortzen dela zioen Guy Debord frantziarrak. Ingurura begiratu besterik ez dago, irudi bitarteko estimuluez beterik gaudela ohartzeko. Egun, mezuak baino garrantzi gehiago dute irudiek. Kapitalismoaren erroetan dagoen merkantilizazioak dakarren ondorioa, nire ustetan.

Gizarte geroz eta azkarrago batean bizi garela; ezin dugula arnasa hartzeko ere geratu. Bizitza etenik ez duen produkzio makina bat bihurtu dugu. Azkartasun honetan, informazioa fetitxizatu eta kontsumitzeko produktu bat gehiago bilakatu delarik.

Paperezko prentsa kinka larrian dabilen garai honetan, sare sozial eta internet bidez kontsumitzen ditugu berri gehienak. Azken hauen bidez, une oro jasotzen dugu aktualitatearen berri. Aipaturiko informazio gaindosi hori, azkartasun eta irudiaren garaiarekin batzen badugu, egungo desinformaziora heltzen gara: jaikitzerako presa daukagu gorputzean, gosalduta eta lanera goaz presaka, bidean astirik izanez gero mugikorra hartu eta aktualitatea begiekin xurgatzen dugu. Ikastetxeko eta lantegiko atsedenetan berriz hartuko dugu gogoz sakelekoa, gurea den asti labur horretan ahalik eta irudi gehien ikusteko. Horrela ibiliko gara egunean zehar, gure gorputzari entzun beharrean pantailako irudiei begira. Ezin dugu ahaztu, pantaila ikusten dugun aldiro ikusten dugun argazkiak “errealitatea” eraldatzen digula. Pixkanaka ustezko errealitatea argazki batetik bestera igarotzen dugun momentu horretara mugatzen da. Irudien gorpil zoroan ezin irten gaude, askotan irteteko nahirik gabe. Kanpainen argazkiak zoragarriak iruditzen zaizkigu, baina, helburua lortzeko harturiko neurriei ez diegu begiratzen. Pentsa, klima aldaketaren aldeko argazki batean Jaurilaritzako kideren bat ikustean, “ze ona!” diogu, benetan hartzen dituzten neurriei arretarik ipini gabe; aurpegian ez zaigu kezka izpirik irtengo, Zubietan erraustegi bat dugula ez delako irudian agertzen, ezta agertuko ere.

Hala, arnasa hartzera gonbidatzen gaituzten kazetak goraiatu nahi ditut. Papera eskuetan irakurtzea, denbora hartzeaz gain errebeldia ekintza txiki bat delako. KARKARA goratu nahi dut, etxe guztietara iristen den aldizkari fisikoa, gure herrietan erreferentzia bat delako. Herritar gehienek irakurtzen dutelako atal bat edo beste. Gutxiago edo gehiago denok hartzen dugulako bertan idatzitakoa irakurtzeko denbora. Herrian komentatua delako. Gorpil zoroaren balaztari emateko gogoia pizten duen aldizkaria delako. Gertukoa zaigulako... Papera digitalizazioarekin ordezkatu duten garai honetan ez delako makala 412 zenbaki kaleratzea. ■■■

**ARNASA HARTZERA
GONBIDATZEN
GAIUZTEN KAZETAK
GORAIATU NAHI DITUT**

Haurren eskubideak eta ongizatea erdigunean

Urtarrilaren 19an hiru urte beteko ditu Xuak, eta egun horretatik aurrera ezingo du espetxean amarekin bizitzen jarraitu. Hori salatzeke jaiotzen Xua Gurasoekin Etxera plataformak Orioko Udaltzaren eta Arartekoaren babesa lortu du, eta abenduaren 28an Donostian egingo den kalejiran izango da, haurren eskubideak aldarrikatzen.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Ekainean aurkeztu zuten Xua Gurasoekin Etxera plataforma, Xua eta haren guraso presoak (Patxi Uranga oriotarra eta Olatz Lasagabaster usurbildarra) banatu ez ditzaten eskatzeko. Izan ere, urtarrilaren 19an hiru urte beteko ditu haurrak, eta legearen arabera, ezingo du amarekin Picassenteko espetxean (Valentzia, Herrialde Katalanak) bizitzen jarraitu. "Bidegabekeria horrek ezin duela gertatu erabaki genuen hainbat herritarrek, eta plataforma sortu genuen", adierazi du Ekiñe Saizarrek: "Patxi zein Olatzek, biek bete dituzte ezarri zitzaizkien kartzela zigorren hiru laurdenak, eta beraz, lege arrunta aplikatuz gero kalean behar lukete. Zer esanik ez, Xuari kartzelan eurekin bizitzea galaraziko diotela jakinda".

2020ko urtarrilaren 19a gerturatzen ari zela ikusita martxan jarri ziren herritarrak, eta "banaketa traumatiko eta gogor hori ekiditea" jarri zuen helburu plataformak; Xua gurasoekin etxeratzea, alegia. "Ume batentzat bere gurasoengandik banatzea oso gogorra da beti, baina aldaketa are eta handiagoa izango da Xuarentzat, amarekin eguneko 24 orduak pasatuz, berarentzat guztiz arrotza den inguru batera etorriko baita. Usurbilen biziko da aitona-amonekin, gurasoengandik ehundaka kilometrotara". Horrek nola eragingo dio emozionalki eta psikologikoki Xuari? Nerea Mendizabal psikopedagogoa: "Erreferentziazko pertsonen galerak desagituraketa bat ekar dezake. Galeraz gain, Xuari egoera guztiz berrira egokitzea dakarkio. Horrelako egoera bat helduoi ulertzea edo onartzea kosta egiten bazaigu, haurrak ezin du ulertu gurasoaren absentiaren arrazoia, eta pasa beharreko doluak zuzenean eragiten dio".

Mendizabalek Atxikimenduaren Teoriak dioena ere gogorarazi du: "Haurren osasun emozionala bultzatzeko badakigu funtsezkoa dela,



adin txikitan, gurasoekiko loturaren kalitatea eta garapena zaintzea. Haur txikiek erreferentzia egonkorreko figura bat behar dute, lotura segurua osatuz joateko, haurren osasun integrala bermatu ahal izateko”.

Orain gertatzen denak, etorkizunean eragingo diola esaten du teoria horrek. Eta, horregatik, Mendizabalek azaldu du garrantzitsua dela Xuak biziko duenaren bezalako banaketak ez gertatzea: “Haurrak etapa honetan jasotzen dituen zainketek bizitzarako eskainiko dion oinarri sendoa bermatzeko baldintzak ekarriko dizkio. Hori dela eta, adin horretan separazioko antsietatea sortzen duen edozein egoera saihestea garrantzitsua litzateke”.

Hilabete hauetan plataformako kideek hainbat egitasmo antolatu dituzte gaia gizarteratzeko, eta herriak “bikaina” erantzun duela uste dute. “Haurren eskubideez ari garenean, denok ulerkorragoak eta sentiberagoak bihurtzen gara, haurren ongizateak lehentasuna izaten baitu, beste ezeren aurretik”. Horregatik, antolatu dituzten egitasmo guztietan jendetza bildu dela azpimarratu dute.

“Batzuetan, nahi gabe, herritarrak etiketatzeko ohitura izaten dugu, eta espero ez genuen jende asko hurbildu zaigu ekimenari babesa ematera eta plataformako materiala erostera”. Sinadura bilketa ere egin zuten, eta hiru mila lagun inguruk babestu dute ekimena, “haur baten eskubideez hitz egiten ari garenean, oso zaila da arazoari bizkarra ematea”.

Arartekoaren babesa

Egoerari irtenbidea emateko hainbat bide jorratu ditu plataformak. Orion eta Usurbilen gaia gizarteratzea izan zen eman zuten lehen urratsa, baina ate guztiak jotzea ezinbestekoa zela argi izan zuten hasieratik. Hala, Arartekoarengana jo zuten. “Hitzordua eskatu

Xua Gurasoekin Etxera plataformaren aurkezpen ekitaldia Usurbilen. UTZITAKOIA



Xua Gurasoekin Etxera kantuaren aurkezpena Orion. ONINTZA LETE ARRIETA

genion eta bileraren aurretik plataformaren berri eman”. Xua Gurasoekin Etxera plataformako kideentzat “oso positiboa” izan zen bilera. “Ezustekoa hartu genuen. Guk pentsatzen genuen Xuak bizi duen egoera kontatuko geniola, eta hor geratuko zela gaia. Ez zen horrela izan ordea, uneoro oso jarrera ulerkorra izan zuen, eta Arartekoak ere ikusten zuen, Xuaren gurasoek lege arrunta aplikatuta ez luketela espetxean egon beharko, eta egoera horretan, haurra gurasoengandik banatzea umearen eskubide urraketa

izango litzatekeela”.

Xuaren amona ere izan zen Arartekoarekin egindako bileran, eta etxeko egoeraz denbora luzez hitz egin zutela aipatu du Saizarrek. Bilera “emankorra eta itxaropentsua” izan zela aitortu dute herri ekimeneko kideek, baina, hankak lurrean dituzte, jakin badakitelako, bide luzea geratzen zaiela aurretik. “Arazoari irtenbidea emateko dagozkion deiak egingo dituela azaldu zigun Arartekoak, eta Madrilen gaia aurkeztuko duela ere esan zigun. Garbi utzi zigun, hala ere, berari ere ezezkoak ematen dizkiotela”.

Orain gutxi, abenduaren 16an, gaia Gipuzkoako Batzar Nagusietara iritsi zen. Hain zuzen, Xua gurasoekin etxeratzeko aldarrikapenarekin bat egin zuten Batzar Nagusietako Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Batzordean alderdi guztiek, PPK izan ezik. Urtarrilean egingo dute hurrengo osoko bilkura Batzar Nagusietan, eta orduan aldarrikapen horren aldeko adierazpena bozkatuko dute.

Alderdi politiko guztiak bat

Arartekora jotzeaz gain, Xua Gurasoekin Etxera plataformak mozioa aurkeztu zuen Orioko eta Usurbilgo udaletan. “Guretzat oso garrantzitsua zen alderdietako udal ordezkariak mozioa aho batez onartzea, eta hasieratik hori izan zen gure helburua”. Horretarako, mozio proposamena bidali zieten alderdi guztiei, eta eurekin elkartu ziren dokumentua aurkezteko. “Hala ere, ez ginen jarrera itxiarekin joan. Hasieran gure mozioa aurkeztea pentsatzen bagenuen ere, Orioko udalbatzarraren egunean, alderdi guztien adostasuna zuen beste mozio proposamena iritsi zitzaigun esku artera”. Orduan, “inongo konplexurik gabe”, plataformak bere mozioa erretiratu zuen, eta bigarrenak egin zuen aurrera. “Egia da gure mozioan zenbait gai zehatzago azaltzen zirela, baina bestea aho batez onartzea guretzat oso garrantzitsua zen, are gehiago, jakinda sentsibiltate desberdinetako alderdiak biltzen dituela Udalbatzak. Denak besoa altxata ikustea garaipena izan zen guretzat, horrek erakusten baitu politikaz harago doan gaia dela Xuarena”.

Azken asteetan, urrats garrantzitsuak eman ditu herri ekimenak, eta lanean jarraitzeko gogotsu daude. Sarek mobilizazioak deitu ditu abenduaren 28rako, eta Gipuzkoan *motxiladun* haurren gaia hartuko dute ardatz. “Kalejira handi bat egingo dugu Porrotzekin Donostian. Gauzak aldatzen ez badira, laster Xua ere *motxiladun* haurren zerrendara sartuko da, eta aipamen berezia egingo diote mobilizazioan”. Gainera, Orioko haurrek Dispersioff ekimenean margotu zuten mural handi bat eramango dute manifestaziora. “Argi utzi nahi dugu Xuarena ez dela kasu isolatua, nahi genukeena baino *motxiladun* haur gehiago baitaude Euskal Herrian. Oso egoera gogorra bizi dute, gurasoengandik banatuta bizi dira, eta ehunka kilometro egin behar dituzte aitarekin edota amarekin minutu gutxi batzuk egoteko”.

Haur gehiago egoera berean

Urranga eta Lasagabasterrek, noski, ezagutzen dute Xua Gurasoekin Etxera plataforma, eta “esker hitzak dituzte” antolatzaileentzat. “Espetxe barruan egonda ezer gutxi egin dezakete, baina gu, beren familia eta lagunak, arazoari irtenbidea emateko lanean ari garela ikusten dute, eta oso eskertuta daude”. Gauzak ez badira aldatzen, biziko duten banaketa “oso gogorra” izango dela jakin badakite bi presoek, eta “urduri eta kezkatuta” daudela azaldu du Saizarrek. “Badakite garai zailak datozela, eta indarra ematen die plataforma kalean lanean ikusteak”.

Bestalde, Xuaren gurasoentzat garrantzitsua da plataformak egiten dituen urratsak “baliagarriak” izatea egoera berean dauden beste haurrentzat. “Xuak egoera berean dauden laguntxoak ditu. Bera da zaharrena, baina gainontzekoak ere, hiru urte betetzen dituztenean, gauzak aldatzen ez badira behintzat, beren amengandik bananduko dituzte”. Horregatik, Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenetik egiten ari diren lanak gainontzekoen banaketa ekiditeko balio izatea ere nahi dute Urangak eta Lasagabasterrek, Saizarrek azaldu duenez.

Xua Gurasoekin Etxera kantua

Pardela eta kartzela
Sehaska eta arraska
Pijama txiki urdinak
Jantzita ditu sorginak
Zergatik daramatzate
Panpinek eskuburdinak?

Patioan kulunpioan
Parkean eta katean
Sokasaltoan ari da
Gurasoak begira
Zergatik etorri behar du
Bakarrik Euskal Herrira?

Espetxean gurasoak
Etxera zatoz Xua
Zabal-zabalik besoak
Hartzazu gure musuaz. ■■■



Dispersioff ekimena. DORLETA AGIRIANO LAI

**MENDIZABAL:
"ERREFERENTZIAZKO
PERTSONEN GALERAK
DESEGITURAKETA BAT
EKAR DEZAKE"**

**SAIZAR: "HAUR BATEN
ESKUBIDEEZ HITZ
EGITEN ARI GARENEAN,
OSO ZAILA DA
ARAZOARI BIZKARRA
EMATEA"**



Harritik hutsera

Azken hilabeteetan *Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969* erakusketa egon da ikusgai. Bertan Arantzazuko basilikako berritze lanetan Jorge Oteiza eskultore oriotarrak bizitako prozesua erakusten zen.

Mendi malkartsu eta amildegi sakonez osatutako paisaia batean kokatzen da Arantzazu, Euskal Herriaren erdigunean. Lekuak erabat hunkitzen du: mendien behetik gorako profilen gogortasun geometrikoa edota harrizko hutsuneen adierazpen gogorra nabarmendu daitezke.

Arantzazuko basilikako berritze lanetarako artista batzuk hautatu ziren lehiaketa baten bidez. Denek ideologia eta plastika antzeko baten inguruan lan egiten zuten; aukera zabal, kontziente eta

abangoardista baten aldekoak, hain zuzen ere. Lan arkitektoniko erlijioso hau euskal artea berreskuratze eta gerraosteko frustrazioarekin amaitzeko aukera paregabea bihurtu zen.

Ibilbide honetan, Oteizak lotura erabat pertsonala erakutsi zuen proiektuarekiko. Bere bokazio esperimetal eta exijentzia formalak erlijio eta arte sentimentuak bateratzeko baliatu nahi zituen, egungo gizakiari zuzendutako eskultura bat sortzeko. Biluzik eta

**OTEIZAK ERLIJOAREN
SINBOLOGIA HORI
NATURAKO
ERLIEBEETAN IRAKURRI
ZUEN**

babesgabe erakusten digun itxaropenaren kontzientzia hunkitua sinbolizatu nahi zuen, eta horretarako, erritua eta mitoa biluztearen barne prozesu batean murgildu zen. Estetika eta erlijioaren arteko elkarrizketan irtenbide bat bilatu zuen: “Bizitza ematen duena bizirik dago, heriotza ematen duena hilda, eta bere burua Jainkoaz bete behar duena, bere buruaz hustu behar da”.

Oteizak erlijioaren sinbologia hori naturako erliebeetan irakurri zuen. Arantzazu inguruko mendien behetik gorako geometriaz baliatu zen, baita harrizko hutsunez ere. Basilikako aurrealdean agertzen diren pietatea eta hamalau apostoluak hutsik ageri dira, harrizko gorputz hutsak arimari lekua eginez. Pertsonaiek

HAUXE BAI JENEROA!



NIRE HONETAN




DORLETA AGIRIANO LAI

Atzean utzitakoak

Ate-joka dugu 2020. urtea, aurrerapauso bat eman, eta datozen hamabi hilei bide egiteko irrikitan. Zenbaitzako dira Urtezaharra agurtzeko eta berriari ongietorria egiteko moduak, urteak utzitako oroitzapen gozo zein gaziak bezainbeste. Esaterako, atzean uzten ari garenetik ihes egin genezake, beldurti, itolarritz, urteari ezikusiarrena egiteko gogoz.

Edo, parez pare aurkitu ditugun ispilu eta atzerako ispiluetan islatutakoari heldu geniezaioke. Egunez egun ispilatu zaigunari eta islatu dugunari begietara begiratu. Gure islada, ispiluak erakusten diguna, behatu. Goitik behera. Atsegin dugu ikusten duguna? Zer diote gure begiek? Zer trabatu zaio, eztarrian, aurrean dugun irudiari?

Puskatu genitzake mirailak, ezer ispilatu ez dezaten; edo kontrara, zizelkatu genezake gure burua, ikusi nahiko genukeena islatzen has dadin. Sarri, atzean utzi nahi dugun hori ez baita ispiluak edota urteak, erremediorik gabe, *ekarri* duena. Guk geuk egunerokoan hazten eta biziartzazten utzi duguna baizik. Ihes egiteko baino, atzerako ispilua esku urdurietan hartu eta aurrera begira jartzeko ordua da urte amaiera, aurrerako bidea irudikatu dezan, eta urratu nahi ditugun bideek bertan tokia izan dezaten. ■■■



Oteiza Arantzasuko apostoluak egiten. OTEIZA MUSEOA

bizitzaren eskaintza erakusten dute, hutsik dauden gorputzak elkarri begiratzuz, elkarrekin hitz egiten edo elkar baztertzen duten buruekin. Argi-ilunen erritmo batekin jolasean dauden elkarriketak eta dantza egiten duten besoak.

Eskultura honek sakonera jotzen du eta emozioak sortzen ditu ikuslearengan, beti berri eta aldakor agertzen den bolumen bat. Oteizak zioen eskultura honetatik hitzak ateratzen antzeman zitzakeela. Amaiera zela sentitu zuen. ■■■





Seguros Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69



XIXARIO
Erregetgia

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 • ORIO • 943-83 00 19



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

Pelotari, 5 • ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.



EGUBERRI
GOXO GOXOAK
OPA DIZKIZUEGU

BODEGA KATXIÑA

Bodega Katxiña Jatelea



AIAKO LARDIZABAL HERRI ESKOLA



ERIK PEREIRA

Liburu artean murgilduta

ESTI URANGA LIBURUTEGIKO LANGILEA



Esti Uranga.

Zein da zure jaioterra?
Ni Aian jaio nintzen.
Noiz hasi zinen liburutegian lanean?

Liburutegian orain dela pare bat urte edo hasi nintzen.

Gustatzen al zaizu zure lana?

Bai. Oso polita da.

Asko irakurtzen al duzu?

Boladaka, baina beno, azkenaldi honetan liburu tartean ibiltzea tokatzen zaidanez, gehiago.

Nongo liburutegian egiten duzu lan?

Momentu honetan, Astigarragakoa.

Liburutegi horretan duzun zer liburu proposatuko zeniguke?

Ia-ia 30 mila liburu daude, zaila da. Nik liburutegira sartu eta

pasiluetatik bueltaka ibili, eta iruditzen zaizuen liburua hartu eta begiraten joatea gomendatuko nizueke. Eta, halako batean *begira*, *hauxe* esaten duzuenean, horixe hartzea.

Ipuinik kontatzen al duzu?

Gure liburutegian ez. Bi langile gara eta jende ugari ibiltzen da. Horregatik, ipuinak kontatzera ipuin kontalariak gonbidatzen ditugu. Adibidez, Lur Korta askotan izaten dugu gurean.

Norbait bota al duzu liburutegitik?

Bai. Pare bat edo bidali behar izan ditut, hori nire lanaren parte da. Liburutegia txukun mantendu behar da, gauzak zaindu egin behar dira, ondo erabili, eta batez ere isiltasuna mantentzea oso garrantzitsua izaten da. Jende asko joaten da ikastera eta.

Handia al da liburutegia?

Bai, ideia bat egiteko, Aiakoa baino pixka bat handiagoa da Astigarragakoa, baina joaten den jende guztiarentzat txikia geratzen da; liburutegi berri bat ari dira egiten orain herrian, handiagoa. ■■■

Aiako eskola zaharraren erabilera

Aian dagoen eskola zahar txikiak ez du ia erabilerarik. Udan, udalekuetako materiala gordetzeko erabiltzen da eta, nire ustez, uda ez denerako erabilera bat eman behar zaio etxe horri.

Uste dut egokia litzatekeela eraikuntza hau, adibidez, musika eskola bezala erabiltzea. Orain musika eskola lehengo eskola zaharrean dago, baina sukaldea zegoen tokian egiten da, eta nire iritziz, leku txikia geratzen da.

Horregatik, musika eskola, eskola zahar txikian egitea egokia izango litzatekeela pentsatzen dut. Ikasteaz gain, adibidez, pianoa etxean ez daukanak entseatu ahal izateko tokia edo gitarrak, panderoak eta trikitiak gordetzeko leku bat gehitzea ere ondo egongo litzatekeela uste dut.

Entseguetarako ordutegi bat edo zerrenda bat jarriko balitz, orden jakin batean joango litzateke jendea. Beraz, uste dut arau egoki batzuk hauek izan daitezkeela: ordutegia jartzea eta ordutegi horretatik kanpo aukerarik ez egotea sartu eta entseatzeko; arduradun bat jartzea giltzak berak eduki eta musika eskola ireki eta itxi egiteko.

Kontrol bat eramanez, herritarrentzat erabilgarria izan daitekeen eraikuntza bihurtuko genuke denon artean, Aiako eskola zaharra. ■■■



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-83 36 45

Oria Hertz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoei.

Mugitu zure osasunagatik



TESTUA: AINARA MANTEROLA

Sarritan entzuten dudan komentarioa da jarduera fisiko saio edo entrenamendu baten inguruan, "tartea hartzen badut eta saioa egin, ondo, bestela, gaur ere ezer ez". Bai, ez zaio arrazoirik falta, egitea beti (gehienetan) izaten da onerako, baina ez egitea ez da bere horretan gelditzen, ez egitea kalterako da.

Jakina da sedentarismoa munduan hiltzeko 5 kausa nagusien artean dagoela, aktibitate eza eta ohitura txarrekin loturiko bestelako arazoak izanik lagun, hala nola, hipertentsioa, obesitatea, tabakismoa eta beste zenbait arazo kardiobaskular, elkarren artean lotura zuzena dutenak.

Denok dakigu kaltegarria dela ez mugitzea, bai fisikoki zein mentalki arazo handiak ematen dizkigu. Jakina baino gehiago da jarduera fisikoa egitea gaixotasun kardiobaskularren prebentzio onena dela, hezur eta giharren estrukturei dagokien ere mesede handia egiten digula. Depresioaren aurkako giltzetako bat ere bada,

eta autoestimua egokiaren iturri. Osasuna da.

Zenbat sentituko zarete identifikatuak bizkarreko minarekin, artikulazioetakoekin, odol analisi alteratuarekin, obesitatearekin, hipertentsioarekin, estresarekin, etab. Bizitza estresatuak ditugu, presaka bizi gara, batzuk 8 ordu eserita pantaila baten aurrean, besteak postura desagokietan ordu asko. Honela, tentsioak akumulatuz, mugikortasuna galduz, giharrak lokartuz eta hauen aktibitatea itzaliz. Zientifikoki frogatua dago honelako arazoan aurrean orain arteko tratamenduek –atsedena eta pilula batek– ez dutela funtzionatzen. Mugitu egin behar gara, gorputza, indartu, tentsioak askatu eta aktibatu.


Bestalde, beste puntara joango naiz momentu batez. Gaintrenamenduak asko markatu nauenez, aipatu nahi nuke, presioa, mugan entrenatzea, asko, eta gehienetan gaizki ez dela ona osasuna bilatu nahi dugunontzako. Goi mailako

kirolaria izanik, hori jasateko prestatzea gomendatuko nizuke aspektu ezberdinak landuz. Bestela, ze zentzu du minarekin egon eta gogor entrenatzen jarraitzeak, etxean zuen txikiekin zein familiarekin, lanean edo lagunartean denbora galtzeak? Asko exijitzeak zuen buruari, askotan gogorik gabe entrenatzeak, soilean, gehiago hobe dela pentsatzeak. Goi mailako kirola ez da osasuna, garbi dudan ikuspegi bat da, hortaz horra nire gomendioa: goi mailako kirolaria ez bazara, ez hartu paper hori, inork ez dizu eskertuko, eta osasuna eta denbora galduko dituzu.

Baloratu zuen bizitzako zein puntutan zaudeten, baloratu zuen osasuna, zuen gorputza, zuen minak, sasoi eta zuen denbora, inoiz errekeratuko ez duzuen denbora. Bilatu oreka. Sedentarismitik atera ahal bezain pronto, ez badakizue nola, eskatu laguntza.

Ikasi eta ezagutu zer den jarduera fisikoa eta kirola, ezagutu zure gorputza aktibo eta bere abantailak zure osasun fisiko zein mentalarentzat. Eta beste puntan zaudeteno, neurria hartu eta hausnarketa bat egitera bultzatuko zintuzketet. Gertutik bizi duzuenok badakizue zertaz ari naizen.

Jarduera fisikoa eta Kirola egoki eginda, medikuntza da, osasuna da. ■■■



Gure pribilegio eta ardurak



TESTUA: INIGO FERNANDEZ OSTOLAZA

Euskaraz bizi nahi dugunontzat, pribilegio handia da Orion edo Aian bizitzea. Pribilegio hitzaren zentzurik onenean: pagotxa, luxua, zortea da edozein saltokitan sartu eta euskaraz egin ahal izatea, edo kalean edonori hasieratik euskaraz lasai hitz egiteko aukera edukitzea, gehien-gehienek ulertu egingo dizutelako, eta, ez bada hala, ziurrenik modu onean esango dizutelako mesedez gazteleraz egiteko. Aian eta Orion euskara nagusi delako, hemen euskararen arnagune garelako. Zorionekoak gu. Hartuko lukete euskaldun askok gure egoera!

Azken hiruzpalau hamarkadatan gizartea gauza askotan ikaragarri aldatu den arren, Orion eta Aian eutsi egin diogu geure euskalduntasunari. Eremu berriak irabazi ditugu euskararentzat: administrazioan, hezkuntzan, kale paisaian, kultur eskaintzan... Eta ondo samar goaz, baina oro ez da urre, jakina.

Kezkatzen nau, batez ere, gure herrian euskaraz normal, natural bizi ahal izateak ez ote gaituen gehiegi lasaitzen, laxatzen, anestesiatzen. Ez ote garen burbuila batean bizi, euskaldun askok eta askok – gehien-gehienek! – euskaraz bizitzeko dituzten muga eta eragozpenekiko sorgor edo

ezaxolati. Ez ote garen sarritan, herrian bertan eta zer esanik ez kanpoan gabiltzanean, azkarregi makurtzen gaztelerara. Labur esanda: ez dakit behar bezala konturatzen garen arnagune bateko euskaldun gisa ditugun pribilegio eta ardurez.

Pribilegioek ardurak ekarri behar bailituzkete, bizitzaren eremu guztietan, ezta? Gizalegezkoa iruditzen zait, erabat, pribilegioak dituenari ardura eskatzea.

Orion eta Aian arnagune izateari eutsi behar diogu noski, baina ez soilik hurrengo oriotar eta aiar belaunaldiari arnagune sendoagoak uzten saiatzeko. Birikak ez du arnas hartzen beretzat bakarrik, baizik eta gorputz osoa indartzeko. Horregatik, kontziente izan behar genuke garrantzitsuak garelako, ez soilik hurrengo aiar eta oriotarrentzat, baita euskaraz bizi nahi duten oraingo eta biharko euskal herritar guzti-guztientzat ere.

Non sortuko dira euskarazko hitz, irain eta mota guztietako esamolde jator berriak

euskaraz, ez bada arnaguneetan? Non sortuko da euskarazko gazte hizkera? Non sortuko dira bihar telebistan, egunkarrietan, musikan, kiroletan, publizitatean, ingeniarietan eta beste hainbat alorretan behar-beharrezkoak ditugun profesional euskaldun eredugarriak, noiznahi eta nonahi euskaraz jator eta egoki arituko direnak dutenak?...

Arnaguneetako herritarrok, euskaraz bizi nahi dugunok behintzat, euskaldun ez ezik, euskalzale kontziente ere izan behar genuke. Eta euskararentzat, eta gainerako euskaldunontzat, funtzio eder eta garrantzitsua betetzen dugula jakinda, horretan ahalegindu, edonoiz eta edonon.

Eskubideak unibertsalizatu omen daitezke; pribilegioak, aldiz, ez. Euskaraz lasai bizi ahal izatea pribilegioa da oraindik, zoritxarrez. Saia gaitezen dagokigun ekarpena egiten, euskaraz bizitzea eskubide arrunta izan dadin, bihar ez bada etzi, Euskal Herri osoan. ■■■

Sagasti
LEIHOAK
Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihok.com

Aho batez onartu dute 2020rako Orioko udal aurrekontua

8.044.732 euroko aurrekontua izango du Orioko Udalak datorren urterako, eta 807.223 euro bideratuko ditu inbertsioetara.

Azaroaren amaieran Orioko Udalbatzak 2020rako udal aurrekontuak onartu zituen aho batez. Hala, 8.044.732 euroko aurrekontua izango du Orioko Udalak datorren urterako, eta 807.223 euro bideratuko ditu inbertsioetara. Anuska Esnal alkatearen esanetan, "aurrekontu arrakastatsuak" dira onartu dituztenak. Batetik, "denborak errespetatu" dituzte-la uste duelako. "Aurrekontua garaiz onartzeko zailtasuna egon da beti Orion eta, ondorioz, urtearen lehen zatian lan egin ezinik geratzen zen udala. Horregatik, hasieratik argi genuen azaroan onartu nahi genituela 2020rako udal aurrekontuak".

Bestetik, alkateak azaldu zuen duela bi hilabetetik beste hiru taldeekin aurrekontuak negoziatzen aritu direla, aho batez onartu ahal izateko. "Eskerrak eman nahi dizkiet egin duten ahaleginagatik".

Bukatzeko, aurrekontu "aurrerakoiak" direla ere azpimarratu zuen Esnalek. "Aurrekontu aurrerakoiak dira gizarte zerbitzuen arloan, kulturari, hezkuntzan eta euskaran, besteak beste. Lanean eta elkarlanean jarraitzeko ilusio handia piztu didate".

Adostasunerako prest

EAJko kide Andoni Torresek Esnalen lekukoa hartu zuen udalbatzarrean, eta aurrekontuak adosteko alderdiek izan duten jarrera nabarmendu

zuen. "Jakin bagenekien hainbat proiekturi uko egin beharko geniola adostasunera iristeko. Guk, esaterako, herritarrekin hartu genituen hainbat konpromiso bideratu ditugu; hala nola parke estalia egiteko konpromisoa, herri baratzak sortzeko proiektua, hondartzako bidegorria edo udal musika banda sortzeko proiektuak bultzatzea, besteak beste. Beste zenbait proiektu mahai gainean geratu dira, eta horiek hurrengo urteetan eginen saiatuko gara", azaldu zuen EAJko kideak.

PSE-EEko Ana Priederen iritziz 2020ko aurrekontuen bereizgarri nagusia "gizarte arloko partidak indartzea" izan da. "Etxez etxeko laguntzaren eta larrialdietarako laguntzaren partidak handitu ditugu, eta uste dut, horrek behar gehien dituzten herritarren egoera hobetzen lagunduko duela. Izan ere, larrialdietarako eskaera mordoarekin iritsi gara 2019 bukaerara. Horietako asko oinarrizko beharrei aurre egiteko eskaerak izan dira, Orioko errealitatea nahiko gogorra baita".

Orain ere "gustura"

Orain plataformako Joxe Anjel Iparragirren iritziz, aurrekontu «onak» dira, besteak beste, beren programan aurkeztu zituzten konpromiso gehienak lehen urtean bideratuko dituztelako. "Horrez gain, onak dira, alderdiok adostasunetara iristeko nahia izan dugulako



Munto eremuko pasarela.

uneoro". Bestalde, "isilpean lan" egiten duten Orain plataformako kideak ere izan zituen gogoan Iparragirrek hitzartzean. "Astelehenero taldeekin elkartu naiz, udaleko gaiak lantzeko. Eskerrak eman behar dizkiet".

Inbertsioetako partida nagusiak

- Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna: 43.000 euro
- Etxebizitza eta Hirigintza. Plan Orokorra: 36.167 euro
- Proiektuak: 45.000 euro
- Kaia eta Aritzaga kaleko obrak: 221.856 euro
- Muntoko parkeko pasarela: 12.000 euro
- Estropalari kalea asfaltatzeko bigarren fasea: 35.000
- Mutiozabal pasealekuko sarbide berria: 60.000 euro
- Autopistako panelak: 10.000 euro
- Kiroldegiko tabernatik kirol gunera eskailerak: 15.000 euro
- Haur parkeak: 48.006 euro.
- Haur baratza 30.000 euro
- Haurreskola: 30.000 euro
- Zaragueta Eskola: 15.000 euro
- Kultur Etxeko atea: 7.100 euro
- Kosta Tailerrean igogailua jartzeko: 24.000 euro
- Kanpina: 26.206 euro
- Landa errepedeak konpontzeko 12.000 euro.

Emakumeentzako Ahalduntze Eskolak ikastaroak antolatu ditu

Eider Goiburuk eta Aizpea Esnaolak aurten jarri dute martxan emakumeentzako Ahalduntze Eskola Orion. Orain artean, besteak beste, harrera zerbitzua eskaini dute kultur etxean kokatutako gunean, eta Apal Morea ere aurkeztu zuten iragan astean.

Berrikuntzekin datoz orain. Emakumeen beharrak identifikatzeko diagnosia abiatzean iragarri modura, azterketa horretatik lortutako emaitzak oinarri hartuta, hainbat ikastaro antolatu dituzte, Ahalduntze Eskolaren barruan. Hain zuzen, honakoak izango dira eskainiko diren eskolak:

• Kudeaketa emozionala

- Noiz: otsailaren 15ean, 09:30etik 13:30era.
- Lekua: Salatxo aretoan.
- Hizkuntza: euskaraz eta gazteleraz.
- Saioaren gidaria: Irati Trebiño.
- Azalpen orokorra: "Bizi garen gizartean pertsonak gero eta urunduago gaude elkarrengandik eta beharrezkoa da giza esperientziaren aberastasuna taldean bizi ahal izateko aukerak eskaintzen dizkiguten guneak sortzea. Izaki sentikorrek gara, baita sozialak ere. Hortaz jabetzeko eta hori esperientziara eraman ahal izateko abagunea sortzea da tailer honen helburua; sentimenduz jabetzeko, onartzeko eta horiek partekatu ahal izateko espazio bat sortzea".

• Noka

- Noiz: otsailaren 28an, martxoaren 6an, 13an eta 20an eta 27an, eta apirilaren 3an, 18:00etatik 19:30era.
- Lekua: kultur etxean.
- Hizkuntza: euskaraz.
- Saioaren gidaria: AEK.
- Azalpen orokorra: "Hitanoa bizi-bizirik dago Orion, baina ia-ia ez da erabiltzen neskei zuzentzerakoan, nahiz eta adineko emakume askok oraindik normaltasun osoz hitz egiten duten noka. Nokak badu garrantzia emakumeon ahalduntzean ere, noka hizkuntza erregistro egokia baita, emakumeon arteko konplizitate sustatzeko eta gizon-emakumeen arteko harreman horizontalagoak eraikitzen laguntzeko".

Nokak badu garrantzia emakumeon ahalduntzean ere, noka hizkuntza erregistro egokia baita, emakumeon arteko konplizitatea sustatzeko eta gizon-emakumeen arteko harreman horizontalagoak eraikitzen laguntzeko".

• Etxeko konponketak

- Noiz: urtarrilaren 28an eta otsailaren 4an eta 11n, 17:30etik 19:30era.
- Lekua: Etxeluze gaztetxean.
- Hizkuntza: euskaraz eta gazteleraz.
- Saioaren gidaria: Izaskun Gurrutxaga.
- Azalpen orokorra: "Tradizionalki mundu maskulinizatuak dira konponketak eta brikolajea. Tailer honetan emakumeon autonomia bilatuko dugu lanabesen maneja landuz".

• Euskaltzaletasuna eta feminismoa

- Noiz: otsailaren 26an, 19:00etan (baieztatzeke).

- Lekua: kultur etxean.
- Hizkuntza: euskaraz.
- Saioaren gidaria: Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre.
- Azalpen orokorra: "Hizkuntza eta generoa gurutzatzen direla badakigu, hizkuntza hautuak igarotzen direla genero eraikuntzatik eta alderantziz. Prestigioaren, pribilegioen eta eskubideen banaketak osatzen duen jendarteko botere sarean jokoan daude euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna. Euskara eta generoa, biak dira menderakuntzaren alaba, eta, horregatik, biak dira ahalduntzeko eta boteretzeko lekua".

• Autodefentsa feminista tailerra nerabeentzako

- Azalpen orokorra: "Emakumeonganako indarkeriaren jatorria sexuaren arabera ezartzen diren botere harremanak direnez, honi aurre egiteko gakoak eskaini eta harreman eredu berriak aldarrikatzen dituen jarrera politikoa feminismoa delako. Lasai hitz egiteko, bizipenak partekatzeko eta taldeko indarra eratzeko gune aske eta segurua topatuko duzu tailer honetan, autoestimua feminista hartuta ardatz. Ikastaro honetan erasoak identifikatzen ikasiko dugu. Mekanismoak eta ekintzak bilatuko ditugu eguneroko bizitzan diren eraso egoerei aurre egiteko".

Oharra: antolatzaileen esanetan, "indarkeria kasuak detektatutako emakumeekin" egingo dute azken tailer hori. ■■■




HAMALAU!

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.

Mezua

Erabil ezazu honoko alfabetoa Olentzerok zer dioen jakiteko. Iruditxo bakoitzaren azpiko laukian dagokion letra jarri eta hitzak osatuko dituzu.



Itzala


Ea, bide batez, zein dira Olentzeroren eta zakurraren itzal zuzenak?

Handitik txikira

Ordenatu itzazu hostoak, handitik txikira. Jarri hosto bakoitzaren alboko biribilean ordenari dagokion zenbakia.

PUZZLEA

Hemengo pieza hauek beheko puzzlearenak dira, baina hamar falta zaizkigu puzzlea erabat osatzeko. Zeintzuk? Non geldituko zaizkigu zuloak? Gainera, hemengo piezetako bat okerra da, ez dagokio puzzleari. Zein da?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

AGENDA

ORIO

EMANALDIA

Abenduaren 20an, Herribil emanaldia, Harribil Dantza Taldeak antolatuta.
Karela kiroldegian, 22:00etan.

Abenduaren 24a, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera Lera taldearen eskutik.
Pietatearen parean, 17:00etan.

Urtarrilaren 5ean, Errege magoen kabalkada herriko kaleetan zehar.
Kiroldegian amaiera, 17:00etan hasita.

MUSIKA

Abenduaren 25ean, Ikatza Fest.
Etxeluze Gaztetxean, 18:30ean.

Abenduaren 24an, haurren kalez kaleko saioa. Orioko Ikastolako, Zaragueta eskolako eta Danbolin Musika Eskolako haur, irakasle eta gurasoak kantari arituko dira.
Ikastolako ondoko plazan hasita, 10:45ean.

Abenduaren 28an, Benito Lertxundiren kontzertua.
Karela kiroldegian, 22:00etan.

Abenduaren 28an, Bertsio Gaua.
Etxeluze Gaztetxean, 22:00etan.

Urtarrilaren 3an, Biren musika taldearen kontzertua.
Kultur etxean, 20:00etan.

TAILERRA

Abenduaren 23an, xaboi eta krema naturalen tailerra.
Etxeluze Gaztetxean, 18:00etatik 20:30era.

TONBOLA

Abenduaren 24an, Tonbola Ikastolako DBHko ikasleek antolatuta.
Herriko Plazan, 11:00etan.

IRTEERA

Abenduaren 26an, Ludotekako haurren irteera Ficobako jolas parkera.

Abenduaren 30ean, Gaztelekuko gazteen irteera Ficobako jolas parkera.

HITZORDUA

Abenduaren 30ean, Gabonetako haur parkea.
Karela kiroldegian, 11:00-13:30 eta 16:30-19:30

Abenduaren 30ean, Errege magoen kabalkada entsegua.
Ikastola barruko plazan, 19:00etan.

Urtarrilaren 2an, Txurumuskiko jolas-tailerrak HH-LH mailako haurrentzat.

Urtarrilaren 4an, Errege magoen kabalkadako entsegua.
Ikastola barruko plazan, 19:00etan.

Urtarrilaren 5ean, Erregeen karteroa. Bizarzuri ibiliko da gutunak jasotzen herri guztian zehar.
Herrian ibili ondoren eguerdian plazara iritsiko da, 11:00etan.

AIA

HITZORDUA

Abenduaren 20an, Olentzeroren etorrera.
18:00etan.

Abenduaren 24an, Gabon eskea.
Plazan auzoetan joateko, 9:00etan eta kaskoan ibiltzeko 18:00etan.

Abenduaren 27an, bertso afaria.

Abenduaren 30an, puzgarriak.
17:00etatik 20:00etara.

Urtarrilaren 2an, haurrentzako eskulanak.
Gaztelekuan.

Urtarrilaren 4an, Errege magoen laguntzailearen etorrera.
19:00etan.

Urtarrilaren 5ean, Errege magoen etorrera.
19:00etan.

KIROLA

Abenduaren 26an, Olinpiadak eta txokolatada.
Gaztelekuan, 16:00etan.

Abenduaren 28an, futbol txapelketa eta txokolatada.
16:00etan.

Abenduaren 31an, Aiako Auto Slaloma.
Ubegunen, 10:00etan.

Abenduaren 31an, San Silbestre lasterketa. Izena ematea egunean bertan egingo da, 16:30ean.
17:00etan

EMANALDIA

Urtarrilaren 4an, Tor Magoaren *Amarru* antzezpena.
17:30ean.

IRAGARKI SAILKATUAK

GALDUTAKOAK

Argazki kamera digitala galdu dut. Kamera poltsa gris eta zuri baten barruan zegoen. Modeloa Sony Cyber-shot DSC-RX100M3, beltza. Serie zenbakia S01-30838664-l. Oso argazki garrantzitsuak ditu. andreas.schwarz@gmx.bix. Tel.: 688 85 96 82

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

LAN BILA

Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tel.: 674 12 32 93.

Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tel.: 638 73 05 44.

Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinako zaintza, garbiketara lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentzietan. Tel.: 661 13 32 95.

Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularak emateko prest. Lehen hezkuntza graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tel.: 636 31 22 31.

Neska lan bila. Barnezaintzailea, garbiketara lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tel.: 632 58 23 65.

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehalarekin hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehalarekin hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabiltza pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

Urdaira sagardotegin txotx sasoiari lanerako jendea behar dugu. Urtarrilaren 11n hasi eta maiatzaren 10era izango litzateke.

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 661 33 11 13.

Emakume arduratsua naiz eta etxea alokatu nahiko nuke. Iraupen luzeak alokairu bila nabil. Tel.: 676 44 13 27 edo 676 44 13 27.

Neska oriotar bat etxea alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abertura arte aseguru ordaindu du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kobxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugesezko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	08:15 eta 20:45	01:57 eta 14:32	☉
2	09:03 eta 21:39	02:45 eta 15:23	☉
3	10:00 eta 22:42	03:40 eta 16:21	☉
4	11:05 eta 23:48	04:43 eta 17:23	☉
5	12:11	05:49 eta 18:24	☉
6	00:50 eta 13:11	06:51 eta 19:19	☉
7	01:43 eta 14:03	07:45 eta 20:07	☉
8	02:29 eta 14:50	08:32 eta 20:52	☉
9	03:11 eta 15:33	09:17 eta 21:34	☉
10	03:52 eta 16:15	10:00 eta 22:16	☉
11	04:34 eta 16:58	10:43 eta 22:58	☉
12	05:16 eta 17:41	11:27 eta 23:41	☉
13	05:59 eta 18:23	12:12	☉
14	06:44 eta 19:13	00:26 eta 12:59	☉
15	07:33 eta 20:05	01:14 eta 13:49	☉
16	08:26 eta 21:00	02:05 eta 14:44	☉
17	09:26 eta 22:05	03:03 eta 15:44	☉
18	10:35 eta 23:18	04:08 eta 16:52	☉
19	11:52	05:21 eta 18:03	☉
20	00:33 eta 13:06	06:36 eta 19:11	☉
21	01:40 eta 14:10	07:43 eta 20:10	☉
22	02:36 eta 15:04	08:41 eta 21:00	☉
23	03:24 eta 15:50	09:30 eta 21:44	☉
24	04:07 eta 16:31	10:13 eta 22:23	☉
25	04:45 eta 17:07	10:51 eta 23:00	☉
26	05:21 eta 17:42	11:28 eta 23:36	☉
27	05:55 eta 18:16	12:03	☉
28	06:29 eta 18:49	00:12 eta 12:39	☉
29	07:03 eta 19:23	00:47 eta 13:14	☉
30	07:38 eta 19:59	01:24 eta 13:51	☉
31	08:15 eta 20:40	02:03 eta 14:32	☉

FARMAZIAK-URTARRILA

ORIO

3, 16, 17, 20, 21, 22, 23 eta 24. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 36

ZARAUTZ

11 eta 12.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
7 eta 18.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
30.	GALLO: Zigordia kalea, 17 / 943-13 40 19
8, 14, 18 eta 19.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
9.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
4, 5, 10, 28 eta 29.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
15 eta 27.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
1, 25, 26 eta 31.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
2 eta 6.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)

Fax-a: 943-89 05 62

alustiza@autocaresalustiza.com

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Puntua jarrita

Maria Azkue
(Doinua: Gizona eta zoroa)

1
**Herriko neska gazteei
kirola bultzatzen**

kide hauen artean
ari naiz ikasten
elkarrekin batuta
ze indar daukaten
jarraitu nahiko nuke
eurekin gozatzen

2
Orion sumatzen zen
klub baten beharra
hortan lan egitea
gure nahi bakarra
latza da ikustea
euren irribarra
ea pizten diegun
eskubaloi garra

3
Proiektu hau sortzeko
hainbeste ahalegin
horregatik deu garbi
zer nahi dugun egin
emaitzez ahaztu eta
talde lana erein
eta ozenki esan
ORIO ERAGIN!

Hurrengo bertsolaria:

Txomin Bentakoari!

Puntua:

Asko aldatu zaigu San Martin
bailara.

**Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Maria Azkueri jarri dio puntua
Ainara Manterolak: "Herriko neska gazteei kirola bultzatzen". Hurrengoari ere jarri dio puntua.**







ANIA ANILIBIA

GIPUZKOA

Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN